

Intxaurreondo

Gorabeherak etxebizitzaren zergarekin

Hego Intxaurreondoko babes ofizialeko etxebizitzetan bizi diren auzotar batzuk nahastuta dabilta zerga dela eta. Auzotarrok zehatz mehatz zenbateko zerga ordaindu behar duten eta etxebizitzaren jabe noiz izango diren argitu dezan eskatu berri diote Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazori.

Gladys Villalba

Besteak beste, Hego Intxaurreondoko Buztintxulo, Baratzategi eta Pello Mari Otaño kaleetako babes ofizialeko etxebizitzetan bizi direnei, aspalditik, gehiegizkoa iruditzen zaie etxebizitzaren zerga. Horregatik, batzuek kexa helarazi zioten iaz Foru Ogasunari. Kexak aurkeztu zituztenek ez zuten erantzunik jaso, baina hasiera batean 120 euro ordaindu behar bazuten ere, azkenean 48 euro ordaindu zituzten iaz. Auzia, baina, ez da bukatu, izan ere, auzotarrok ekainean jaso zuten aurtengo zergari dagokion ordainagiria eta bertan, berriz ere, 120 euro ordaindu behar zutela jakinarazi zitzaizen. Batzuei, ordea, ez zaie oraindik kobraketarik egin. Honek guztiak nahasmena eragin du auzotarron artean.

Idazkia Etxebizitza sailburuari

Auzia behin betiko konpontzeko, Hego Intxaurreondoko auzotar horiek idazkia helarazi berri diote Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazori. Beren etxebizitzaren balio katastrala zehaz dezan eskatu diote Madrazori,



balio horren arabera ordaintzen direlako zergak. Azkenik, etxebizitzok zein legek arautzen dituen argitu dezan eskatu diote. Izan ere, ez dakite noiz izango diren beren etxe-

bizitzaren jabe: "1994an Buztintxulon egindako 12 etxebizitzetara dagokienez, Madrazok berak esan zigun eroslea 30 urteren buruan izango zela etxebi-

Behar baino gehiago ordaintzen dutela diote auzotarrek

zitzaren jabe, eta beraz, orduan izango duela saltzeko eskubidea. Babes ofizialeko etxebizitzaren araudiaren arabera, ordea, antza denez, eraiki eta 20 urtera izaten da eroslea etxebizitzaren jabe. Horretaz gain, ez dago oso garbi 20 edo 30 urte horiek etxebizitza erosi genuenetik edo egin zutenetik hasten diren kontatzen. Laburbilduz, ez dakigu noiz izango garen etxebizitzaren jabe".

Moda biktimak

Azaroaren 9a arte, Tytti Thusberg-en "Moda biktimak" erakusketa bisita daiteke Zubiaurre pasealekuko Casa del Este-n. Thusberg-ek birziklatutako materialak ballatuta, modak, kontsumismoa bultzatzearen, emakume eta jantzi irrealak aurkeztu ohi dizkigula irudikatu nahi du.



F. i. CASTRO

GAS & BEROGINTZA - ITURGINTZA
INSTALAZIOAK, KLIMATIZAZIOA

Tel.: 943 277 085 Faxa: 943 292 665

**E
G
U
R
R
A**

Sukalde altzariak

EGURRA

Donostia

Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: 943 281098 • DONOSTIA
Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: 943 691273 • ZIZURKIL